NOTICIAS E INFORMACIONES DE INTERÉS
ALBISTE ETA INFORMAZIO INTEREGARRIAK
Sasoia
Nafarroako Jubilatuen Elkartea
Asociación de Jubilados/as de Navarra

**Noticias e informaciones de interés 3-mayo-2025**

## 1.- Millares de personas salieron el jueves a las calles en Euskal Herria

Con motivo de la celebración del 1 de Mayo, Día Internacional de los Trabajadores y Trabajadoras, miles de personas (trabajadores/as, pensionistas, colectivos de mujeres y jóvenes) se manifestaron el jueves por las calles de las capitales y de algunas otras localidades de Euskal Herria. Fueron unas manifestaciones bastante concurridas, en las que tuvieron presencia diversos sectores y empresas en lucha, entre ellas los trabajadores/as de Bridgestone que realizaron una marcha desde Basauri para sumarse a la movilización en Bilbao, en contra de los 335 despidos (el 40 % de la plantilla) que les quiere aplicar la dirección.

Las convocatorias de las manifestaciones fueron diferenciadas por parte de los sindicatos, poniendo de manifiesto la heterogeneidad y discrepancias en el mundo sindical vasco. Buena parte de ellos denunciaron el contexto internacional de guerras y confrontaciones económicas entre las grandes elites y potencias económicas, que nada tienen que ver con los intereses de los trabajadores/as y de los pueblos, con el grave riesgo de imponer recortes y ataques a sus derechos laborales, sociales y democráticos.

Algunos de los sindicatos, sobre todo por parte de quienes componen la mayoría sindical (aunque también éstos se manifestaron de un modo separado), en sus lemas y discursos pusieron el acento en la demanda de un salario mínimo propio, haciendo referencia también a la defensa de una pensión mínima y digna. El Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria en su manifiesto había destacado el interés de que ambas reivindicaciones planteadas de un modo conjunto tuvieran un lugar destacado en esta celebración del 1 de Mayo.

Un sector significativo del movimiento de pensionistas participó en diversos cortejos sindicales. Algunos compañeros/as lo hicieron con sus pañuelos identificándose como miembros del MPEH, pero su presencia no fue destacada por que nuestro llamamiento a la participación fue que cada pensionista lo hiciera en aquellas convocatorias o cortejos sindicales donde se sintiera más cómodo o reconocido.

De todos modos, aun siendo importantes las movilizaciones que se llevaron a cabo, la necesidad de movilizaciones obreras y populares más amplias y reivindicativas se hacen imprescindibles ante el panorama laboral, social y político al que nos vemos confrontados

## 2.- Hoy el MPEH daremos un broche final a la campaña de recogida de firmas

Después de casi cuatro meses de campaña de recogida de firmas, hoy, 3 de mayo, el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria saldremos a las calles en las tres capitales y en unos 70 pueblos de la Comunidad Autónoma Vasca a dar un broche final a la campaña de recogida de firmas en apoyo a la ILP presentada.

En no pocas localidades lo haremos acompañados de música y con las modestas pancartas que han presidido las mesas de recogida de firmas, aunque en algunas de ellas lo harán incluso de un modo más llamativo. Y en las capitales y otras localidades referenciales hemos invitado a los medios de comunicación para que se acerquen a las mesas y puedan dar constancia del apoyo social que ha tenido el apoyo a esta ILP.

Con toda seguridad superaremos la cifra de 130.000 firmas recogidas. Ello ha sido gracias al esfuerzo militante y activo de muchos compañeros/as del movimiento de pensionistas que han aguantado muchas horas de recogida de firmas en las calles y en otros lugares donde se reunía gente de toda edad y condición popular. Podemos estar muy orgullosos/as del trabajo realizado y de la acogida social que ha tenido entre muchas personas pensionistas, trabajadores/as, mujeres en general, jóvenes, etc. El reto y su resultado ha merecido la pena.

**3.- Apagón en el sistema eléctrico y no aclaración de las causas que lo motivaron**

El apagón del sistema eléctrico que conocimos el lunes y que abarcó a toda la península Ibérica (Estado español y Portugal), ha puesto de manifiesto la vulnerabilidad del sistema eléctrico. Aún no se sabe cuáles han sido las causas que motivaron el apagón.

Hay quienes han puesto el foco en las renovables como posible causa del problema, y quienes han aprovechado el fallo para destacar el interés de las nucleares para garantizar una fuente de energía barata y segura. El presidente del Gobierno, Pedro Sánchez, ha descartado públicamente que las renovables fueran causa del apagón. No cabe duda que detrás de las versiones y alternativas que se proponen hay fuertes intereses de los grandes sectores empresariales de la energía. Habrá que esperar a ver que explicación final dan de las causas que motivaron el apagón. Debería ser clara y transparente, exigiendo al mismo tiempo responsabilidades a quienes corresponda.

**4.- La mayoría sindical vasca inicia la recogida de firmas para conseguir un salario mínimo propio**

Los sindicatos ELA, LAB, ESK, STEILAS, HIRU y ETXALDE (que constituyen la mayoría sindical vasca) han iniciado la recogida de firmas en apoyo a una Iniciativa Legislativa Popular (ILP) para conseguir la competencia de establecer un salario mínimo en Hego Euskal Herria. Por medio de esa ILP se pretende un cambio en el Estatuto de los Trabajadores para que las Comunidades Autónomas puedan establecer un salario mínimo acorde a su realidad y que esté por encima del estatal.

Esta iniciativa ha sido admitida a trámite en la Comunidad Autónoma Vasca (CAV), pero en Navarra la mesa del parlamento no lo ha aceptado. Ha sido recurrida por estos sindicatos, pero sin esperar a la respuesta van a iniciar la recogida de firmas, para después con las firmas en la mano pedir a los partidos políticos que lleven esta petición al parlamento.

El objetivo de estos sindicatos es recoger el máximo de firmas, tal como estamos haciendo el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria con nuestra ILP, para que los partidos políticos parlamentarios se vean en la necesidad de admitir el paso a trámite y debate parlamentario de las ILP presentadas.

El Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria consideramos positiva esta iniciativa sindical, así como cualquier otra, para lograr el reconocimiento a un salario mínimo propio, acorde a la realidad socioeconómica de Hego Euskal Herria. Precisamente el pasado 5 de abril, el MPEH convocamos manifestaciones en la CAV con el apoyo de todos los sindicatos y de diversos colectivos sociales con el lema salarios y pensiones dignas "ya", ahora" para todos y todas, es decir considerando también de sumo interés un salario mínimo propio, superior al estatal. En Navarra el apoyo fue de los sindicatos que han promovido esta recogida de firmas.

Lograr que las pensiones mínimas en Hego Euskal Herria sean complementadas hasta equipararlas al salario mínimo interprofesional, o que se lograra un acuerdo para que el salario mínimo alcanzara los 1.500 euros en 14 pagas (como demanda la mayoría sindical) sería algo muy importante porque podrían verse favorecidas más de 350.000 personas, pensionistas con pensiones mínimas y trabajadores/as con el salario mínimo estatal, que constituyen un sector muy vulnerable de la sociedad vasca, mayoritariamente compuesto por mujeres.

Tras la entrega de las firmas en apoyo en apoyo a la ILP presentada por el MPEH, que llevaremos a cabo el 15 de mayo en el Parlamento de Gasteiz, veremos cuándo se lleva a cabo la decisión parlamentaria de su admisión a trámite y debate en el mismo.

Por otro lado, las posiciones cerradas y de bloqueo de las patronales Confebask en la CAV y la CEN en Navarra, hacen prever que las dificultades para que se avengan a negociar un salario mínimo propio en Hego Euskal Herria y superior al estatal van a ser muy grandes.

Habrá que estar muy atentos a lo que vaya sucediendo en las próximas semanas y meses y, desde luego, si hay un rechazo a que se debata y decida positivamente la ILP presentada por el MPEH y un bloqueo al acuerdo por un salario mínimo propio y digno en Hego Euskal Herria, habrá que ver qué iniciativas de apoyo mutuo y convergencia se pueden dar entre el movimiento de pensionistas y los sindicatos, así como con otros colectivos sociales interesados en conseguir *salarios y pensiones dignas ¡ya!, ¡ahora! y para todos y todas.*

### 5.- Manifestación en Madrid a favor de Palestina el 10 de mayo

Yala Nafarroa, junto con BDZ Nafarroa, animan a la sociedad navarra a una gran movilización en Madrid el próximo día 10 de mayo para "exigir justicia para Palestina". La marcha está organizada a nivel estatal por la Red Solidaria contra la Ocupación de Palestina. En la movilización, bajo el lema "Muévete por Palestina", se pedirá la "ruptura inmediata de todas las relaciones diplomáticas, económicas, culturales, institucionales y militares con el Estado de Israel.

Señalan que ante la limpieza étnica que Israel está cometiendo desde hace 77 años, y con la situación especialmente grave que se vive en este momento en Palestina, que además no ha acarreado por el momento sanciones a Israel, es necesario exigir "la ruptura de todas las relaciones diplomáticas, económicas, culturales, institucionales y militares con el Estado de Israel en todas las escalas administrativas, educativas y sociales".

Harán también un llamamiento a cumplir las denuncias por genocidio presentadas por Sudáfrica ante la Corte Internacional de Justicia, a apoyar el embargo total de armas y

de tecnología militar a Israel, incluyendo el fin de licencias y al fin del tránsito de armamento por el Estado español. Yala Nafarroa y BDZ Nafarroa van a fletar varios autobuses que saldrán el mismo 10 de mayo (a las 5:30 horas desde el parque Antoniutti en Pamplona, a las 6:05 desde Recoletas de Tafalla y a las 6:45 desde la gasolinera de Cepsa en Cintruénigo) y volverán ese mismo día a las 20:00 horas desde Madrid.

Desde el Movimiento Pensionista de Navarra destacan la importancia de sumarse a esa movilización solidaria con Palestina para que el Gobierno español sienta la fuerza del poder popular y atienda las exigencias que se le plantean.

**Albiste eta informazio interesgarriak 2025eko maiatzak 3**

**1.- Milaka lagun kalera atera ziren ostegunean Euskal Herrian**

Maiatzaren 1a Langileen Nazioarteko Eguna dela eta, milaka pertsonak (langileak, pentsiodunak, emakumeen eta gazteen kolektiboak) manifestazioa egin zuten ostegunean Euskal Herriko hiriburuetako eta beste herri batzuetako kaleetan. Manifestazio jendetsuak izan ziren, eta borrokan ari ziren hainbat sektore eta enpresa izan ziren bertan, besteak beste, Bridgestoneko langileak. Basauritik martxa bat egin zuten Bilboko mobilizazioarekin bat egiteko, zuzendaritzak aplikatu nahi dizkien 335 (langileen % 40) kaleratzeen aurka.

Sindikatuek era berezituan egin zituzten manifestazioen deialdiak, euskal sindikatuen artean dauden heterogeneotasuna eta desadostasunak agerian utziz. Manifestazio horietako askotan elite eta potentzia ekonomiko handien arteko gerren eta konfrontazio ekonomikoen nazioarteko testuingurua salatu zuten, langileen eta herrien interesekin zerikusirik ez duena, beraien eskubide laboral, sozial eta demokratikoei murrizketak eta erasoak ezartzeko arrisku larria dakarrena.

Sindikatu batzuek, batez ere euskal gehiengo sindikala osatzen dutenek (nahiz eta horiek ere bereizita manifestatu ziren), beren lelo eta diskurtsoetan gutxieneko soldata propio baten eskarian jarri zuten arreta, gutxieneko pentsio duin baten defentsari ere erreferentzia eginez. Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak (EHPM), bere manifestuan, maiatzaren 1eko ospakizun honetan modu bateratuan planteatutako bi aldarrikapen horiek leku nabarmena izateko interesa nabarmendu zuen.

Pentsiodunen mugimenduko sektore esanguratsu batek sindikatuek deituriko manifestazio ezberdinetan parte hartu zuen. Kide batzuek beren zapiekin joan ziren, EHPMren kide gisa identifikatuta, baina ez bloke bezala, EHPMk egindako parte hartzeko deia pentsiodun bakoitzak erosoago edo aitortuago sentitzen zen sindikatu-deialdian parte hartzekoa izan zelako.

Nolanahi ere, egin ziren mobilizazioak garrantzitsuak izan arren, langile- eta herri-mobilizazio zabalago eta aldarrikatzaileagoen beharra ezinbestekoa da aurrez aurre ikusten dugun egoera laboral, sozial eta politikoaren aurrean.

**2.- Gaur, sinadura-bilketako kanpainari amaiera emango dio EHPMk**

Sinadurak biltzeko ia lau hilabeteko kanpainaren ondoren, gaur, maiatzak 3, EHPM kalera aterako da Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hiru hiriburuetan eta 70 bat

herritan, aurkeztutako Herri Ekimen Legegilearen (HEL) aldeko sinadurak biltzeko kanpainari amaiera emateko.

Herri askotan, musikaz lagunduta eta sinadurak biltzeko mahaien buru izan diren pankarta xumeekin egingo dugu, baina toki batzuetan modu deigarriagoan ere egingo dute. Eta hiriburuetan eta erreferentziazko beste herri batzuetan komunikabideak gonbidatu ditugu mahaietara hurbildu daitezen eta HEL honi emandako babesaren berri eman dezaten.

Ziurtasun osoz, bildutako sinaduren kopurua 130.000 baino handiagoa izango da. EHPMko kide askoren ahalegin militanteari esker lortu da hori, sinadurak biltzeko ordu asko eman baitituzte bai kaleetan zein adin guztietako jendea biltzen ziren ekimen herrikoietan. Oso harro egon gaitezke egindako lanaz eta pentsiodun, langile, emakume, gazte eta abar askoren artean izan duen harrera sozialaz. Erronkak eta bere emaitzek merezi izan dute.

**4.- Sistema elektrikoaren itzalaldia eta bera sortu zuten arrazoiak ez argitzea**

Astelehenean ezagutu genuen sistema elektrikoaren itzalaldiak, Iberiar penintsula osoa (Espainiako Estatua eta Portugal) hartu zuenak, agerian utzi du sistema elektrikoaren kalteberatasuna. Oraindik ez dakigu zerk eragin zuen itzalaldia.

Badira, arazoaren kausa posible gisa, berriztagarriak azpimarratu dituztenak, eta badira ere akatsa aprobetxatu dutenak, energia-iturri merke eta segurua bermatu ahal izateko, zentral nuklearren beharra nabarmentzeko. Pedro Sanchez Espainiako Gobernuko presidenteak publikoki baztertu du berriztagarriek eragin zutela itzalaldia. Zalantzarik gabe, proposatzen diren bertsioen eta alternatiben atzean energiaren enpresa-sektore handien interes handiak daude. Itzalaldia eragin zuten arrazoien azken azalpena ikusi arte itxaron beharko da. Argia eta gardena izan beharko luke, eta, aldi berean, erantzukizunak eskatu beharko lizkieke dagokionei.

**5.- Euskal gehiengo sindikalak, gutxieneko soldata propioa lortzeko sinadurak biltzen hasi da**

ELA, LAB, ESK, STEILAS, HIRU eta ETXALDE sindikatuek (euskal gehiengo sindikala osatzen dutenek) sinadurak biltzen hasi dira Herri Ekimen Legegile (HEL) baten alde, Hego Euskal Herrian gutxieneko soldata bat ezartzeko eskumena lortzeko. HEL horren bidez, Langileen Estatutuan aldaketa bat egin nahi da, autonomia-erkidegoek beren errealitatearekin bat datorren gutxieneko soldata ezarri ahal izan dezaten, Estatukoaren gainetik.

Ekimen hori EAEn onartu dute izapidetzeko, baina Nafarroan Parlamentuko Mahaiak ez du onartu. Sindikatuek helegitea aurkeztu dute, baina erantzunaren zain egon gabe, sinadurak biltzen hasiko dira, eta, ondoren, sinadurak eskuan, alderdi politikoei eskaera hori Parlamentura eramateko eskatuko diete.

Sindikatu horien helburua ahalik eta sinadura gehien biltzea da, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua (EHPM) gure HELkin egiten ari garen bezala, Legebiltzarreko alderdi politikoak aurkeztutako HEL izapidetzeko eta eztabaidatzeko onartzera behartuta sentitu daitezen.

EHPMk positibotzat jotzen du ekimen sindikal hau, bai eta beste edozein ekimen ere, Hego Euskal Herriko errealitate sozioekonomikoarekin bat datorren gutxieneko soldata propioa lortzeko. Joan den apirilaren 5ean, hain zuzen ere, EHPMk manifestazioak deitu zituen EAEko sindikatu guztien eta hainbat gizarte-kolektiboren babesarekin, soldata eta pentsio duinak "orain" eta "guztiontzat" lelo pean, hau da, gutxieneko soldata propioa, estatukoa baino handiagoa, oso interesgarritzat hartuta. Nafarroako manifestazioak sinadura-bilketa hori sustatu duten sindikatuen babesa izan zuen.

Hego Euskal Herrian gutxieneko pentsioak osatzea lortzea, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin parekatu arte, edo akordio bat lortzea gutxieneko soldata 14 ordainsaritan 1.500 eurora iristeko (gehiengo sindikalak eskatzen duen bezala), oso garrantzitsua izango litzateke, 350.000 pertsona baino gehiagok diru-sarrera handiagoak lortuko baitituzte, hain zuzen, gutxieneko pentsioak dituzten pentsiodunak eta Estatuko gutxieneko soldata duten langileak, euskal gizartean oso sektore ahula osatzen dutenak, gehienbat emakumez osatua.

Maiatzaren 15ean Gasteizko Legebiltzarrean EHPMk HELren aldeko sinadurak aurkeztu ondoren, ikusiko dugu noiz erabakitzen duen Legebiltzarrak hura izapidetzea eta eztabaidatzea.

Bestalde, EAEko Confebask patronalaren eta Nafarroako CEN patronalaren jarrera itxien eta blokeoaren ondorioz, Hego Euskal Herrian gutxieneko soldata propioa eta estatukoa baino handiagoa negoziatzeko zailtasunak oso handiak izango direla aurreikus daiteke.

Adi egon beharko dugu datozen aste eta hilabeteetan zer gertatuko den jakiteko, eta, jakina, EHPMk aurkeztutako HELa eztabaidatu eta modu positiboan erabakitzeari uko egiten bazaio eta Hego Euskal Herrian gutxieneko soldata propio eta duin baten aldeko akordioa blokeatzen bada, ikusi beharko da zer nolako ekimenak egin daitezkeen pentsiodunen mugimenduaren eta sindikatuen artean, bai eta *soldata eta pentsio duinak orain eta guztiontzat* lortzeko interesa duten beste kolektibo sozial batzuekin ere.

## 6.- Palestinaren aldeko manifestazioa, Madrilen, maiatzaren 10ean

Yala Nafarroak, BDZ Nafarroarekin batera, maiatzaren 10ean Madrilen mobilizazio handi bat egiteko deia egin dio Nafarroako gizarteari, "Palestinarentzako justizia eskatzeko". Martxa Palestinako Okupazioaren aurkako Sare Solidarioak antolatu du estatu mailan. Mobilizazioan, "Mugitu Palestinaten alde" lelopean, "Israelgo Estatuarekiko harreman diplomatiko, ekonomiko, kultural, instituzional eta militar guztiak berehala haustea" eskatuko da.

Adierazi dutenez, Israel duela 77 urtetik egiten ari den garbiketa etnikoaren aurrean, eta une honetan Palestinan bizi den egoera bereziki larria kontuan hartuta, Israeli oraingoz zigorrik ekarri ez diona, beharrezkoa da "Israelgo Estatuarekiko harreman diplomatiko, ekonomiko, kultural, instituzional eta militar guztiak haustea eskatzea, maila administratibo, hezitzaile eta sozial guztietan".

Era berean, Hegoafrikak Nazioarteko Justizia Gortean genozidioagatik aurkeztutako salaketak betetzeko deia egingo dute, baita Israeli armak eta teknologia militarra guztiz enbargatzen laguntzeko ere, lizentzien amaiera eta Espainiako Estatutik armamentua igarotzea barne. Yala Nafarroak eta BDZ Nafarroak hainbat autobus antolatu dituzte maiatzaren 10ean bertan ateratzeko (5:30ean Iruñeko Antoniutti parketik, 6:05ean

Tafallako Errekoletoetatik eta 6:45ean Cintruenigoko Cepsa gasolindegitik) eta egun horretan bertan itzuliko dira 20:00etan Madriletik.

Nafarroako Pentsiodunen Mugimenduak nabarmendu du garrantzitsua dela Palestinarekiko mobilizazio solidario horrekin bat egitea, Espainiako Gobernuak herri-boterearen indarra senti dezan eta planteatzen zaizkion eskakizunak bete ditzan.